

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko urriaren 26a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Bera • Bertako produktuak, eskulangileak eta euskal giroa gailenduko dira igandean, Lurraren Egunean

Ander Gillegi • «Nafarroan fede handiagoa aurkitu dut»

Gaueko azken kopa



• MIKEL SAIZ

Nafarroako Gobernuak urte osoa darama ostalaritza establezimenduen ezaugarri eta ordutegiak arautuko dituen dekretuaren proiektuarekin. Parrandazaleen eta lotien eskubideak bateratu behar dira, eta ez da erraza. After hours deiturikoekin bukatzeko, gobernuak ostalaritza lokaletan dibertitzeko ordutegia gehiago murriztu du, eta horrek ika-mika sortu du. Tabernek 01:30ean itxiko dute, eta taberna bereziek, 03:30ean. Goiz oheratzea eta diskoteka handiak gustuko ez dituzten gautxoriek zer edo zer asmatu beharko dute gaueko azken kopa aterpean hartzeko

Bera ●

Lurraren hatsa

Bertako produktuak, artisauak eta euskal giroa izango dira igandean Berako karriketan

Ehun artisautik goiti bilduko dira Beran igande honetan, egurra, zeramika, larrua, elikagaiak, burdina, ehunak, eta bertzelako eskulanak lantzen eta saltzen. Bertako baserriarrek eta eurek ekoiztutako produktuek leku berezia izanen dute XV. Lurraren Egunean.



Ehun eskulangiletik goiti bilduko dira Beran igande honetan, Lurraren Egunean. ● TTIPI-TTAPA

Orain hamabortz urte Gure Txokoa Elkartek lehenbiziko Lurraren Eguna antolatu zuenean, inor gutik pentsatuko zuen hain arrakastatsu gertatuko zela. Euskal Herrian egiten den lanaren erakusgarri, eta galbidean diren hainbertze lanen leiho izateko xedearekin sortu zen. Besta giroan ospatzeko prestatua, beratar guztientzat egun berezi bihurtu da dagoeneko, eta inguruko he-

rrietatik ere anitz joaten dira egun-pasa.

Horrela, bada, Lurraren Eguna hainbat ekitaldi hartzen ditu bere baitan. Artisauak izaten dira protagonista nagusiak. Euren lanekin Altxateko karrika guztia hartuko dute. Denetara ehun artisautik goiti bilduko dira Beran, eta horietako anitzek lana tokian berean egingen dute. Eskualdeko eskulangileei gonbita berezia egiten zaie, eta

protagonistetako batzuk ere eurak izanen dira. Artisauen artean arrakasta itzela lortzen dute elikagaiak prestatzen dituztenak, eta horientzat atontzen da Altxateko plaza.

Baina Lurraren Eguna bertako baserriarrek bihurtu ditu protagonista. Bortziritako baserrietan ekoizten diren fruta eta barazkiekin erakusketa itzela prestatzen dute. Baserrietako produktuekin ere bi lehiaketa

osatzen dituzte, gasna lehiaketa eta sagardo lehiaketa. Gasna lehiaketa hasiera-hasieratik egiten da. Onenak 20.000 pezetako saria eskuratuko du, 12.000 pezeta bigarrenak, eta 7.000 hirugarrenak. Sagardo lehiaketak, berriz, laugarren aldia izanen du aurten. Bi sari banatuko dira, 15.000 pezetakoa bata, eta 5.000 pezetakoa ber-
tzea.

Animazioa egun osoz

Ekitaldi horiekin guztiekin batera, bertzelako animazioak ere prestatu dituzte Gure Txokoa Elkarteko kideek. Goizean, 10:30ean hasita, Lizuniagako igoera krosa korrituko da. Horrekin batera, musikak hartuko ditu karrikak: txalapartariak, akordeoilariak, txistulariak, trikitilariak... Eguerdian, Irurtzongo dantzariak aterako dira dantzan. Arratsaldeko 17:00etan, sarien banaketak eta gasnen enkantea egingen da. Ondotik, Jon Maia, Amets Arzallus eta Julen Zelaieta bertsoan ariko dira Altxateko plazan, eta gero, perkusio taldeari leku egingen diote. Irats herriko plaza taldeak eta Laiotzek besta alaituko dute. Arratsalde osoan taloak, gaztainak eta sagardoa dastatu ahal izanen dira. 19:00etatik goiti, Eztegarra pilotalekuak bi pilota partida hartuko ditu: Otxandorena eta Zeurraren artekoa, lau t'erdiko txapelketaren barrenean, eta Alustiza-Errandonea eta Koka Errastiren artekoa.

→ Jon Abril

Lekunberri
●
Euskal Herriko
artzain gazta
txapelketa

Lekunberri izanen da aurten go Euskal Herriko XVIII. artzain gaztaren txapelketaren lekuko nagusia. Igandean, goizeko hamarretan hasi eta arratsaldeko ordu biak bitartean, Nafarroatik, Gipuzkoatik, Arabatik eta Bizkaitik joandako 41 artzainek esku hartuko dute lehiaketa honetan.

Lekunberriko langilea den Idoia Olaskoagak adierazita koaren arabera, «urtero herrialde batean antolatzen da txapelketa hau. Idiazabalen dagoen artzain gaztaren batzordeak aurten Lekunberri egiterik ote zegoen galdetu ziguten eta guk baiezkota eman genien». Karpa handi bat jarriko da Aralar kalean eta bertan, goizeko hamarretan, artzainek beraien gaztak aurkeztuko dituzte. Gero, haiketarik ordu bata arte, epaimahakideek gaztak dastatu dituzte.

Ordu batean epaimahaiak bost irabazleen izenak ezagutzera emanen ditu eta sariak banatu dira. Irabazleek trofeo bana jasoko dute, baina emanen zaie diru saria ezberdina izanen da: lehendabizikoak 145.000 pezetak jasoko ditu eta bosgarrenak 20.000.

Lehiaketa bera ezezik, beste hainbat ekitaldi ere antolatu dira. Izan ere, sariak banatukoan, Jose Antonio Otxandorena gazta teknikariari omenaldi bat eskainiko zaio. Honetaz gain, gazta saltzaileak, artisauak eta ardogleak topatu ahal izanen dira. Baita bustina eta artilea lantzeko tailerrak ere.

Bertara hurbiltzen den orok gazta aintzinako eta oraingo erara nola egiten den ikusteko parada ere izanen du.

→ Estibalitz Ortega

muga enea

MIKEL REPARAZ



Bin Laden maltzuraren atzaparrak noraino iristen diren jakitea zaila da. Adi ibili beharra dago maiz. Dalai Lama inuzentearen oihalen pean, Erramun Martikorenaren baserrian, Miguel Sanzen lorategian edo eta basoan, fagadietako orbeletan egon daiteke-eta, estalirik, mehatxua. Biktima albotik pasa zain. Zarea eskuan, igande goizetako behelainopetan Urbasa arboldegietan barneratzen diren arduragabe horiek guzietan jakin behar lukete dagoeneko hori. Europako Batzordeak adierazi baitu, aditu nahi izan dionaren aitzinean, hemen dela bio-terrorismoa, eta honezkerok zerriak, oiloak eta arkumeak bio-terrorista maltzu-

rren tresna izan daitezkeela. Alegia, zerrikume hegalarri bat Eiffel dorrearen kontra lehertzeko arriskurik ez oin, txekorrak, ardiak eta oilaskoak pentsu kimiko pozoinduak jaten ari direla, ausaz, herritar gizagaioxon izorrratzeko.

Hala ere, Bruselako agintariek azpimarratu dute ez larrizko, ez argi gorrikerik pizteko, bio-terrorista maltzurak edonon egon daitezke-eta, erremediorik ez duela kontuak. Hartaz, Al-Qaeda sarearen erroak Nafarroako bazter ezkutuetaraino iritsi direla kontu eginik, ez litzateke sobera harrigarria izanen horren ondorio logikoa: dibisio bio-terroristaren azpi-dibisio mikologikoaren

basea Nafarroan nonbait dagoela, alegia. Eta bestela adi estatistikei. Igande goiza Nafarroan pasatzen duten eta horren ondorioz gaixotzen diren gipuzkoar herritarren ehuneko 90 intoxikazio berberaren biktima baitira. Ez dago dudarik. Bio-terrorista maltzurak berriz ere. Entoloma Lividum. Izen beldurgarri horren gibelean estaltzen da Maltzurra. Bio-terrorismoa. Antrax forala. Probintziako anai-arrebak lasaitu behar lituzke, hala ere, justizia gailenduko dela jakiteak. Izan ere, Afganistango basamortuan dabilzan taliban horiek guzietan gupidarik gabe akabatuko baititugu, Askatasun Iraunkorren izenean.

Bizente Goienetxe  BAZTANGO NEKAZARIA

«Lehenagoko behiek jendea ikusteko ohitura zuten»

Gaur eta bihar Elizondoko feriak eginen dira. Gaurkoa nekazarien eguna izanen da, azienden merkatuarekin, eta bihar Atso-ferie, emakumeen eguna, batez ere erosketak egiteko. Bizente Goienetxe nekazaria ferietan izanen da, urtero bezala.

GERO ETA AZIENDA GUTTIAGO dago eta gero eta saltzaile gehiago. Goienetxek lehenagoko eta oraingo ferien ezberdintasunak azaldu dizkigu.

■ Zeintzuk dira desberdintasunak orain eta lehenagoko ferien artean?

Orain baino aise azienta gehiago izaten ziren, klase guztietakoak, behiak, behorak, astoak... denetarik izaten zen. Zerri aunitz izaten zen orain dela 40 urte. Bertalde, lehen ez ziren hainbertze saltzaile etortzen; arropa eta antzeko gauzak saltzen dutenez ari naiz. Lehen turroia saltzen aunitz aritzen ziren. Turroiak, mazapanak, litxarria horietatik. Neskatxak turroi eskeñ ibiltzen ziren, doike ez zuten maiz jaten eta egun horretan ase egiten ziren. Jendea ere orain aise gehiago etortzen da feria ikustera.

■ Baserri gehienek eramanen zituzten aziendak feriarra?

Aunitzek bai. Lehenago ez zen biderik baserrietara ailegatzeko, ez zen autorik, ezta «jeep»-ik ere, eta, hortaz, baserriarrek oinez ekartzen zituzten aziendak, eta gero egun osoa pasatu behar izaten zuten Elizondon. Bazkaltzera gelditzen ziren gehienak. Orain baino aise jende guttiago heldu zen. Ostatuak ere ez ziren hainbertze; ostatuak betetzen ziren. Orain jatetxe handiak direnek lehenago, gehienez, 40 lagunendako tokia izanen zuten. Aziendak urrundik ekartzen zituzten: Arizkun, Erratzu... Orduan errepidetik ez zen autorik ibiltzen eta erraza zen. Behiak heziak zeuden, sokatik lasai joaten bazekiten, denak uztaurretan ibiltzen ziren, jendea ikusteko ohitura zuten behiek, lanetarako ere ibiltzen zituzten. Orain belaietan daude solte eta ez dute loturik egoteko ohiturarik. Horregatik, feriarra ekartzen dituztenean nerbiosten dira eta ara-



● RAKEL GOÑI

zoak ematen dituzte geldirik egoteko.

■ Garai batean tratua aunitz egiten zen ferian bertan?

Bai, hainbertze azienta erosten zen. Jendeak eskutan dirua eramaten zuen tratua egiteko. Hortzei eta errapeei ongi begirata, saltzaileak prezioa jarri eta hor hasten ziren tratuan. Aunitz tratua egiten zen. Orain, ordea, erosketak baserrietara joanez

egiten dira urtean. Aukera gehiago bada orain baserrietara joan, solastatu eta nahi duzuna aurkitzeko. Ferian bertan ikusten zenuena erosi behar genuen, gero ez baitzen aukerarik urruneko baserrietara joateko. Gaur egun jendea eguerdian itzultzen da etxera. Garai batean a ze nolako bestak egiten zituzten batzuek aziendak saldu eta ondotik.

→ Rakel Goñi

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Onddoak, futbola eta kanposantua

Berri ugari dakar **Ttipi-ttapa** aldizkariak, beti bezala, bere azken zenbakian. Herrietako albisteez gain, kultura, kirola eta beste hainbat gaiari egin dio toki hamabostekariak, eta ondokoak dira irakur daitezkeen berrietako batzuk. Musikari dagokionez, adibidez, Onddo Berako taldearen lehen diskoa karrikan dagoela zabalitzen du **Ttipi-ttapa**: «Joseba Irazoki, Ibai Gogortza, Iñigo Telletxea eta Igor Telletxea dira taldeko partaideak. Ostatueta salgai dago diskoa, 2.000 pezeta-ren truke».

Kulturaren esparruan bada beste berririk: «Euskal kantugintza zabaldu eta era-

kustarazi, kantatzeko zaletasuna piztu eta kantari berriak plazaratzeko asmoarekin Euskal Kantuzaleen Elkarteak Nafarroako Kantu Txapelketa antolatu du bertze urte batez. Izena emateko epea azaroraren 8a arte zabalik izanen da. Abenduaren 15ean izanen da finala Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan».

Lesakatik kirol berria dator **Ttipi-ttapan**: «Joan den urtean Bortzirriak taldean elkartu ziren Gure Txokoa eta Beti Gazteko infantil mailako futbolariak. Aurtentzen, berriz ere banatu eta Nafarroako Ligan hasiak dira bi taldeak. Kotte Iantzi eta Mikel Oiartzabal entrenatzaileen ardura-

pean, beraz, Iruñea aldera joan behar izaten dute kanpoko partiduak jostatzera. Lehendabiziko aldia da Beti Gazteko ekipa bat talde nafarrez osatutako liga batean aritzen dena».

Ezkurratik, berriz, kanposantuarekin zirikusia duen berria ailegatu da **Ttipi-ttapa**ren bidez, hilerria handitzeko proiektua aurkeztu baitu Udalak Nafarroako Gobernuaren aurrean. «4 milioi pezetako aurrekontua du proiektuak eta hilerria zabaltzeko lurra erosi du dagoeneko Udalak. Nafarroako Gobernuaren oniritzia jaso ondotik, lanak ematea bakarrik geldituko da».



urdai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Making friends

Bi hitzetan esanda: Nafarroa gorrotatzen dut. Asko gorrotatu ere. Sentimendu hau betidanik izan dut. Sekulan ez ditut Nafarroako ikurak begi onez ikusi (ezta arranoa ere), beti iruditu izan zaizkit botere zikin eta atzerakoi baten ikurak.

(Honetaz ari naizela, pentsa zer gauzarekin lotzen ahal dudan hau guztia!, gogora etortzen zait Nafarroako Gobernuaren logotipoa egin zuteneko iskanbila: Del Burgok, temati, duintasunik gabekoa zela eta erdian daukan harribitxia kendua ziotela esan zuten, eta harribitxi horri buruz idazki luzeak plazaratu zituen oso modu nafarrean; historiaz eta ohoreaz gora eta behera ibili zen eta ez dakit nik zer pitokeria oso nafarrak bota zituen).

Nire gurasoek ikastolara eraman ninduten eta horrexegatik, euskaldun bihurtzeagatik, barne-barnetik ezagutu dut zer den herri hau. Txikitandik nozitu dut hemengo Introfobia, eta gaur da eguna esan dezakedana, begi bistakoa da!, Nafarroan ez naizela batere integratu. Auzoan «los vascos no traéis más que problemas», esaten ziguten, eta 30 urtetara igoal-igoal segitzen dute (esalditxo hori bota zidana, noski, oso integratua eta oso nafar-zalea da gaur egun. Gisa honetako bakterioentzat herri hau elikagaiez gainezka egiten duen laborategiko pertz erraldoia baita). Jasotako euskara galdu nahi ez nuela otu zitzaizdanean, ghetto banako batean murgiltzea bezala izan zen. Nik aukeratuako ghetto-a, baina kanpotik ixten eta kontrolatzen dutena. Eta ghetto-aren harresiak gero eta gorago jartzen dituzte hor kanpoko nagusiek. Nire ilobei nire ghetto-ra sartzea galarazi diete, esaterako. Beraien auzoan ez dute euskal eredurik jarri. Ilobentzat nire hizkuntza txinera tankerako zer edo zer da. Goizero ghetto-tik ateratzen naiz gauero itzultzeko. Kanpoan adimen kolonialetako nafarrak, gehiengo gupidagabe hori, ikusten ditut eguneroko. Kolonietan bezala beraien arteko asto-mandoenei ematen diete boterea, gauzek bere horretan segi dezaten. Euskalduna izateko edozein leku da Nafarroa baino aproposagoa (esaterako, Korea edo Tasmania). Eta aurrerakoiak sentitzen ditudan gauza ia-ia guztiekin gauza bera esan dezakegu. Horixe bada: gorrotatzen dudala Nafarroa ●

Natxo Calvo ● AEHNko ABOKATUA

«Dekretuko zenbait kontu absurduak dira»

NAFARROAKO BI OSTALARITZA ELKARTEEK, ANAPEH-K eta AEHN-k, alegazio bateratua aurkeztu dute dekretuaren inguruan. Ixteko orduak atzeratzea eta diru zigorrak jaiste dira alegazioaren oinarri.

■ Atxikimendu zabala jaso du zuen alegazioak: sindikatuak, enpresarien eta merkatarien elkarteak, Alde Zaharreko auzo elkarteak, kanpin elkarteak...

Sindikatuaren atxikimendua oso garrantzitsua da, dekretu hori ezartzeak hainbat kaleratze ekarriko dituelako. Taberna bereziek 13:00etan ireki beharko dute. Horrek kaltea ekarriko du Alde Zaharreko taberna askorendako. Izan ere, gauean goizean baino diru gehiago lortzen denez, askok taberna berezia izatea erabakiko dute. Hortaz, goizean pintxoak eta kafea eta gauean kopak ematen dituzten taberna horiek 13:00etan ireki beharko dute, eta lanpostu asko galduko dira, goizean ezin izan den dutelako ireki.

■ Barne zuzendariak erran du zaila ikusten duela bizilagunen eta ostalarien interesak bateragarriak egitea. Iritzi berekoa zara?

Ez. Nahi izanez gero, beti dago elkar ulertzeko aukera. Egon daiteke bizilagunen bat dioena ez duela batere tabernarik nahi Iruñean, ezta sanferminetan ere. Eta egonen dira ostalariek ordutegi librea nahi dutenak. Baina pentsatu behar da zer den logikoa. Badakigu kalean dagoen jendeak eragozpenak sortzen dituela, baina kalean disfrutatzeko eskubidea dute. Noiz molestatzan dute gehien? Lanegunetan. Ongi, hor-



taz, utz iezaiezu asteburuetan disfrutatzen. Bizitza ez da lana bakarrik, baita aisia ere. Nik uste dut gauza logikoak proposatzen ditugula eta, negoziatuz gero, akordioak lor daitezkeela arazo handirik gabe.

■ Logika diozu. Ba ote da logikarik gabeko konturik dekretuan?

Bai horixe. Badirudi gauza batzuk pentsatu gabe sartu dituztela hor. Hona bat. Demagun nire tabernaren aurrean denda bat dagoela. Denda horrek lasai asko sal ditzake edariak eta bezeroek kanpora atera. Baina nire bezeroek ezin dute hori egin. Absurdua da.

Beste bat. Taberna eta kafetegietako zuzeneko emanaldiak kendu nahi dituzte. Tres Reyes hoteleko kafetegian ezin izan den piano jole bat izan. Eta hasten ari diren lau gaztetxoren taldeak ezin izan den taberna tiki-tiki-tan jo. Non joko dute, Gaiarre antzokian? Eta non eginen du Nafarroako Gobernuak bere pop-rock lehiaketa, tabernetan ez bada?

BESTE DEKRETU BATZUEKIN EGITEN DUEN ez bezala, Nafarroako Gobernuak bueltaka eta bueltaka eman du urtea, batzuei eta besteei entzuten, ostalaritza establezimenduen ezaugarriak eta ordutegiak arautuko dituen foru dekretua egiteko. Iragan larunbatean bukatu zen alegazioak egiteko epea, eta, horiek aztertu ondoren, dekretua hemendik hiru bat hilabetera indarrean izatea espero dute.


Gobernuak adierazi du entzun duela ostalariek eta bizilagunek erran dutena. Baina bere xedea taberna batzuek 05:30ean ixtea eta beste batzuek 06:00etan irekitzea galaraztea dela. Hau da *after hours* deiturikoak akitu nahi ditu.

Tabernak ixteko ordua

After hours delakoak bukatzeko Administrazioak bizilagunek lo egiteko duten eskubidea lehenetsi du eta horregatik ezarri ditu ordutegi mugatuagoak. Tabernek 01:30ean itxiko dute, taberna bereziek 03:30ean eta dantzalekuek 05:30ean (lehen ordubete lehenago ixten zuten). Orain ez da ezberdinduko neguko eta udako ordutegien artean, baina herriko bestetan, Eguberrietan eta Aste Santuan ordubete geroago ixten ahal dute taberna bereziek.

Nafarroako Gobernuak goizeko seieta irekitzen dutenak bukatzea nahi du. Dekretuaren arabera, azken lokalek 05:30ean itxiko dute eta taberna, kafetegi zein jatetxeek ezin izanen dute goizeko hamarrek arte musikarik jarri

Batzuek parranda egin nahi dute, besteek lo. Eta guzien eskubideak bermatu behar dira, noski. Baina parrandazaleen eskubideek lotutakoak bukatzea, besteak beste, zuzeneko musikarik jarri nahi dute. Baina parrandazaleen eskubideak bukatzea, besteak beste, zuzeneko musikarik jarri nahi dute. Baina parrandazaleen eskubideak bukatzea, besteak beste, zuzeneko musikarik jarri nahi dute.



Taberne 01:30ean itxiko dute, eta taberna bereziek «Goiz» oheratzea eta dantzaleku handiak gustuko ez dituzten gaurorik zer edo zer asmatu beharko dute.

Ika-mika handia sortu du ostalaritza establezimenduen ezaugarri eta ordutegiak arautu duen dekretuaren proiektuak

Ostalariek dekretuaren aurka agertu dira, uste dutelako establezimendu askoren hondamendia ekarriko duela, baita lanpostuen galera ere. Gainera, euren iritziz, «dekretuko neurriekin ez dira bukatuko bizilagunek pairatzen dituzten molestiak». Natxo Cal-

vok, Nafarroako Ostalaritza Enpresarien Elkarteak abokatua, erran du dekretuak ez duela bajera edo sotoen ordutegiak arautzen. «Hortaz, lokal hauek ihesbidea izan daitezke tabernetatik 01:30ean edo 03:30ean ateratzen direnendako. Gizartearen errealitatea kontuan hartu behar da; askok gauaz gozatzen dute azken ondorioetarako, hau da, goizeko zortziak edo hamarrek arte. Eta jende hori ez da orain etxera joanen dekretu batek hori dioelako».

«Dekretuak ez du oheratuko jendea» Ostalariek ostiral, larunbat eta jaiegun bezperetan ixtea bi ordu atzeratzea proposatu dute, baita ordutegia ez betetzeagatik ezarritzen diren diru zigorrak kopurua jaiste, taberna berezietan izaten uztea eta establezimendu batek aldi berean lizentzia ezberdinak izatea ere. «Dekretu honekin ezin da taberna berezia

eta jatetxea izan, taberna berezia eta taberna, taberna berezia eta ziberzentroa. Dena dela, nik uste dut honek ere ez duela konponduko arazoa. Badago errealitate bat, pertsona batzuk goizeko zortziak edo hamarrek arte dibertitzen dira. Eta ez ditugu ohean sartuko».

Eta Calvok ihardetsi: «Guk proposatu dugu larunbat eta jaiegunetan musika goizeko hamarrek arte ez piztea. Horrekin *after hours* horiek bukatuko dira. Dena dela, nik uste dut honek ere ez duela konponduko arazoa. Badago errealitate bat, pertsona batzuk goizeko zortziak edo hamarrek arte dibertitzen dira. Eta ez ditugu ohean sartuko».

Asier Azpilikueta

Donibane, gainezka

IRUÑEKO ALDE ZAHARREAN EZIN DA taberna berriak zabaltzea. Bizilagun kopuruak eta metro koadroek ez dute gehiagorako ematen. Inguru ase da. Iruñeko beste zenbait auzotan izendapen bera nahi dute.

Donibane auzoko eskuinaldean (Baiona etorbideak eta Belate, Iratxe eta Larraina kaleek ixten duten eremuan), batez ere Entzutegitik gertu, tabernak ugaltzen dira; eta, horregatik, «after hours» tabernak Donibanen ugaltzen dira bereziki (Opera, Dados, Liberata, Shut).

Auzokoak kexu Martxo aldera, barride talde batek bi astetan 2.300 sinadura bildu zituen gobernuaren aurrean, «asteburu oro era guzietako arazoak sortzen dira inguruan (zarata, zikinaria...) eta, Udaltzaingoaaren txosten baten arabera, iskanbila gehien biltzen zuten eremua zen».

Egoera ez da orain aldatu, baina dekretuak barrideen nahia jaso du, eta kontent dira horregatik. Araudi berriaren arabera, diskotekak izan dira ixten azkenak, eta 05:30ean egiten dute. Taberna, kafetegi eta jatetxeek 06:00etan irekiko dute, baina ezin izanen dute musikarik jarri goizeko hamarrek arte.

baizik. Lokal mota horiek desagertu behar dutela uste dugu. Irekitzen duten ordu horietarako aisiak bukatuta egon beharko luke».

Beste diskoteka bat

Eta hara non, Marengo ondoan, Osasuna bingo zen horretan, beste diskoteka bat eraikitzen ari diren, 770 metro koadrokoa. Iruñeko Udalak, Marengo ondoko bizilagunen alegazioei muzin eginez, zabaltzeko lizentzia eman dio diskoteka berriari. Bizilagunek uste zuten nahikoa zela diskoteka batek sortzen dituen molestiak jasatearekin, eta helegitea aurkeztu dute.

Arraizarendako, ezbaierik gabe, Donibane zona ase izendatu beharko lukete. «Donibane auzokoak izugarria da», dio asaldatuta. «Auzo gaztea izaten hasi zen, hasten diren auzo guzikiak bezala, eta bazuen establezimendu proportzio egokia. Baina auzoa zahartzen ari da, eta ostalaritza establezimenduak izugarri ugaltzen dira. Talka geroz eta handiagoa da. Eta zaila da ulertzen nola jar daitezkeen halako bi lokal bata bestearen ondoan».

Irudi du ostalarien eta barrideen interesak uztartzea zaila dela. Arraizak ez du hori uste. «Ostalarien eta gure interesak bateragarriak dira guziz; ez, ordea, goizeko bostetatik aurrera negozioa zabaltu nahi duten ostalari horien interesak. Ordu



Dantzaleku bat eraikitzen ari dira Baiona etorbidean, Marengo ondoan. ● JOXE LACALLE

Juan Pedro Arraiza auzokide talde horretako kide da. «Iruditzen zaigu dekretua egokia dela», erran dio NAFARKARIARI. «Gure planteamendua ez zen ostalaritza lokal guziena kontrakoa, goizeko bostetatik aurrera irekitzen zuten establezimenduen kontrakoa

horietan agertzen den gizajandea ez dago aisian, desfasaturik dago. Aisia bizilagunen interesekin bateragarria da. Baina gazteriek nahikoa ordu dituzte dibertitzeko, eta aktibitate horietako abusuak zuzendu egin behar dira».

Lokalen sailkapena

• Tabernak eta kafetegiak

Era guzietako edariak, tapak, ogitartekoak eta antzekoak zerbitzatzen espezializaturiko establezimenduak, baldin eta haien kontsumoa lokalaren barruan edo baimendutako terrazetan egiten bada.

- Musika giroa 65 dezibelio arte.
- Terraza bai. Musika ezin da terrazara zabaltzea.
- Zuzeneko ekitaldirik ez.

• Taberna bereziak

Ordu-tarte batzuetan tapak, ogitartekoak zerbitzatu ahal dituzte, baina musika giroaz edariak zerbitzatzeko aritzen diren establezimendu bereziak dira; jardueraren nagusia arratsaldean eta gauez dutenak.

• Musika giroa 90 dezibelio arte.

- Terrazarik ez.
- Zuzeneko ekitaldirik ez.
- Dantza pistarik ez.
- Bi ate sarbidean.

• Ikuskizunetarako kafetegiak

Helburutzat, edariak saltzeaz gainera, musika, antzerki edo zuzeneko ekitaldiak maiz eskaintzea duten establezimenduak, jardueraren nagusia arratsaldean eta gauez dutenak eta agertoki bat ere badutenak.

- Musika giroa 90 dezibelio arte.
- Terrazarik ez.
- Dantza pistarik ez.
- Ate bikoitza sarbidean.

• Publikoarentzako eserleku bat 1,75 metro koadro erabilgarri bakoitzeko.

• Diskotekak

Edariak zerbitzatzeko gainera, dantza egiteko pista bat edo gehiago dituzten lokalak.

- Zuzeneko ekitaldirik ez.
- Etxebizitza-erabileretatik independente den egitura.
- Jatekorik ez.

• Dantzalekuak

Musika ikuskizunak edo gisakoak eskaintzeko prestatutako lokalak, agertokia eta kamerinoak, eta jendearentzako dantza egiteko pista bat edo gehiago dituztenak.

- Zuzeneko ekitaldiak bai.
- Etxebizitza-erabileretatik independente den egitura.

ORDUTEGI BERRIA

Taldea	Establezimendua	Ireki	Itxi
A	Gazteentzako diskotekak	18:00	23:00
B	Antzokiak. Auditorioak. Zinemak. Bideoak emateko lokalak	09:00	01:00
C	Tabernak. Kafetegiak. Jatetxeak	06:00	01:30
D	Josteta aretoak. Ziberzentroak	09:00	01:30
E	Taberna bereziak. Ikuskizunetarako kafetegiak	03:00	03:30
F	Bingo aretoak. Joko aretoak eta kirol aretoak	09:00	03:30
G	Diskotekak. Dantzalekuak	18:00	05:30



Nafarroa Oinez-eko Murphyren legeak

Patxiren teoria entzutetsua:

«Berdin dio zer autobusetan joaten zaren eta autobusean non esertzen zaren: kalimotxozalerik builosoena alboan egokituko zaizu». Herri jaietara doazen autobus zaratatsuak gustuko ez baditugu ere, ikastolako autobusean joan ginen Lodosa-Sartagudara, seme-alabek haur gehiagorekin egoteko parada eduki zezaten, ikastetxe bateko autobusa izanda guraso eta haurren artean mozkortirik izanen ez zelakoan. Ibilgailuko aurreko aldean eseri ginen, lasaitasun bila, atzealdean izaten baita zaratarik handiena. Alta, 16 bat urteko ikasle ohi koadrila alboan eseri zitzaigun: kalimotxoa, ebroka -ibilbidearen irekiera ekitaldian **Aingeru Epaltzak** erabili esamoldea erabilita-, eta nerabeon artean nabarmendu zen erreperitorio urriko grazioso bat. Grazia, bakarra: zorigaitoko iragarkian bezala behin eta berriz «Patxi!!!» ulu egitea, lerrook idatzi dituenari hiru nolotilek baretu ez zuten buruko mina eragin arte.

Peio Zabalararen paradoxa:

«Zira eramaten baduzu, eguzkia gailenduko da. Ez baduzu eramaten, erauntsia». Azken egunotako euri zaparradak eta eguraldi gizon-emakumeen iragarpenak aintzat hartuz, iragan hainbat Nafarroa Oinez lokaztuetako eskarmentua gogoan iltzatuta, emaztearen, Larraitz alabaren, Jon semearen, Action-manen eta boston jertseak eta zirak hartuta joan ginen Lodosa-Sartagudara. Erribera Garaian alimaleko eguzkia topatu genuen -nonbait, **Nuria Iturriagagoi-tiaren** zorionean-. Har-



● JOXE LACALLE
Nuria Iturriagagoitia, kontent, igandean euririk egin ez zuelako.



● EGUNKARIA
Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak.

tara, boston zirek eta jertseek lehertzearaino bete eta zamatu zuten aita familiakoaren motxila. Harrezkerotik emazteak lotzen dizkit zapatak, martirio horren ondotik nire bizkarra ez baita makurtzeko gai. Pare bat dozena orno txikituta dauzkadalakoan nago. Nolanahi ere, ziur naiz zirok eraman izan ez bagenitu zaparrada biblikoa pairatuko genuela.

Xabierraldiko logaritmo nepertarra:

«Aukeratzen duzun aparkalekua beti izaten da ibilbidetik urrutien dagoena». Autobus gidaria eta bizpahiru guraso ibilbidetik gertuen zegoen aparkalekua zein zen eztabaidatzen aritu ziren. Azkenean, gidariak amore eman zuen, eta gurasoek nahi zuten tokian utzi genuen autobusa. Jakina, hura ibilbidetik urrutien zegoen aparkalekua

zen. Hiru ordu laurden oinez eman eta gero ibilbidera iritsi ginelarik, gaztelu puzgarrien eta **Takolo, Pirritx eta Porrotxen** gunearen antipodetan ginela jabetu ginen. Hamar puxtarri guraso orojakileontzat. Nolanahi ere, gidariak proposatu aparkalekura joan izan bagina, zalantzarik gabe, hura izanen zen urrunena.

San Martinen patu petralaren legea:

«Zuk eskatzen duzun ogitartekoa beti da agortu berri dena». Txerrikoa, txerrikoa eta txerrikoa. Horra hor Nafarroa Oinez bezalako festetan topatzen ahal duzun **Martin Berasategi**ren neurriko ogitarteko eskaintza zabala. Hala eta guztiz ere, ordu erdi behar izan zuten Jonek eta Larraitzek zer ogitarteko nahi zuten erabakitzeke. Azkenean, txistorra eskatu zuten, eta,

gauzak sinplifikatze aldera, emazteak eta biok eskaera horrekin-bat egin genuen. Ukondokadaz eta besape usainez josiriko ordu erdi luzea kostatu zitzaidan barrara heltzea, eta beste horrenbeste zerbitzariaren arreta neureganatzea. Azkenean, lau ogitartekoak eskatzea lortu nuelarik, erantzun birrintzailea jaso nuen: «Txistorra oraintxe amaitu zaigu». Hirugiharra eskatu nuen. Bingo. Horixe da seme-alabek gustuko ez duten txerriki bakarra. Hiru ogitarteko jan nituen. Harrezkerotik Almax da nire elikagai bakarra.

Juan Cruz Alli efektua:

«Nafarroa Oinez bat pairatu eta gero beti zin egiten duzu hurrengo urtekora ez zarela joanen. Hala ere, hurrengo urtekora, jakina, joaten zara».



panpilonia zirkus

«Biba Maria»

«Zeruan sartzea bezalako duk», erran zidan kaleko okinak. «Eta nola dakizu hori, zeruan izan zara ala?» galdetu nion. «Ez, ezta infernua ere, ez oraingo, bederen, baina halakoxea izan behar dik. Eta hik ere horixe bera sentituko duk». Zenbait urte pasatuta, iluntasunean, doinu harmoniatsuak hasi nintzen entzuten, hainbat ahotsetan emandako doinu zerutiarrak zen hura. Auskalo nondik zetorren. Nirvanatua nengoen, ahots zoragarri haiek airean kulunkatua, lorian, aingerutxoek ezkilak jotzen zituzten bitartean... Bat-batean begiak ireki, iratzargailua ikusi eta goizeko zazpiak. Okinaz oroitu nintzen. «Bai, zeruan sartzea bezalako duk».

Errana da, Iruñea, urrian, otoiitzean esnatzen zela, eta, gaur egun ere bai, hein batean. Kantariak auroroak dira, noski,

eta koplak batzuk ematen dituzte argi hastean edo goiznabarreko arrosarioan, Andre Mariaren ohoretan. Karrikaz karrika ibiltzen dira, igandeko lehen argi txintak agertu aurretik, esku-ezkilek eta argiontzien gidaturik. Puska bat oinez egin ondoren, kale kantoian edo ezagun baten balkoipean gelditu, ezkilari eragin eta kantuan hasten dira. Goizeko tenore horretan, gainera, den-dena entzuten da Alde Zaharreko karrika meharretan. Gauza jakina baita horren kale estuek mesede egiten dietela erraldoiei, manifestazioetako oihuei eta auroroen abestiei.

Abestietan, etengabe, «biba»-ka aritzen dira. «Biba Andre Maria», «Biba



● MIKEL SAIZ
Iruñeko auroroen egoitza, San Lorentzo karrikan.

Arrosarioa» eta «Biba Santo Domingo fundatzailea». Halaber, aipua egiten diote deabru makurrari, deabru zirikatzaileak Ama Birjinaren seme-alabak tentatzen baititu Arrosarioa ez erreztatza eta esnatu gabe lotan segitzera. Garai bateko gau-txorien graziaren galbahetik pasatuta,

bai, saioa bukatzean, XIX. mendean, Janariz izeneko pattar-dendan segitzen zuten, eta, duela urte aunitzetatik hona, Zakañaren zokotik kalean gora, Mañuetako txurrerian. Ezaguna bazara, dendaren atzeko aldean, patxaka (mendiko sagarrez egindako pattarra) emanen dizute.


Enrike Diez de Ultzurrun

Ander Gillegi

ELIZONDOKO ETA ERRATZUKO APAIZA

«Nafarroan fede handiagoa aurkitu dut»

25 urte beteko ditu datorren azaroan. Nafarroan dagoen apaizik gazteenetakoa da. Irailaren 9an izendatu zuten apaiz, eta orduz gerotik Baztanen ari da lanean. Ttikitandiko bokazioak eraman du apaiz izatera.



● JON ABRIL

GAUR EGUNGO GAZTE GUTIK hartzen duten bidea hartu zuen Ander Gillegik. 16 urteetarako erabaki zuen apaiz izatea, eta 18ak bete aitzin apaizgaitegian sartu zen. Kontent eta itxaropentsu ageri da. Etorkizuna "jainkoaren eskuetan" ikusten du elgetar honek.

■ **Apaiz izateko bokazioa behar dela erraten da sarritan, are gehiago gaur den egunean. Nola erabaki zenuen zuk apaiz izatea?**

Bokazioarena prozesu bat da. Txikitari aukerari artean nuen, beste aukera batzuen artean. Gero hori desagertu zitzaidan, eta futbolista izatea eta horrelako beste kontu batzuk etorri ziren. Apaiz gazte bat herrira etorri zenean eta haren bizimodua nolakoa zen ikusi nuenean sortu zitzaidan bokazioa. Otoitzean, eta jainkoarekin harremanetan jartzean ikusi nuen argi. Apaizgaitegian zenbait alderdi gogorak direla erakusten dizute, eta, hala ere, aurrera egitea erabaki nuen.

■ **Zer izan da zuretzat gogorrena?**

Ez da gogorra, baina pertsonalitatean, formazioan, afektiboki, psikologikoki eragin handia duen kontua da. 24 ordutan zara apaiz, eta horretaz jabetu beharra dago.

■ **Eguno gizartean apaiz izatea baino, bertze balio eta lanbide batzuk daude modan. Nola hartu zuten zure inguruan zure erabakia?**

Etxean kasik normaltzat jo zuten, kristau talde batean bainengoen txikindandik, eta giro horretan mugitzen bainintzen. Lagun batzuentzat normalena izan zen, beste biderik ez nuela esaten zuten; beste batzuek, al-

diz, ez zuten ulertzen. Errespetatu bai, tolerantziaz jokatu, baina nire erabakia ez zuten ulertzen. Hala ere, nire prozesuaz kontziente izan ziren guztiak.

■ **Denbora tarte gutian zure inguruan jende gehiagok bide bera hartu zuen. Zergatik uste duzu gertatu dela hori? Zeren eraginez izan da?**

Norbait inguruan egoteak badu eraginik, dudarik gabe. Herrian pilotari on bat ateratzen denean jende guztiak izan nahi du pilotari. Batzuek besteen alboan egoteak errazten du erabakia. Baina pertsona bakoitzaren erabakia da, nahiz eta zirkuntzietatik bide bat jarri.

■ **Apaiz guti dago, eta arrunt zaharkitzen ari da apaiz taldea. Nola ikusten duzu egoera?**

Egia da egoera ez dela guztiz ona. Baina fedeak esperantza edukitzera eramaten nau. Jainkoaren eskuetan dago etorkizuna, eta hori esperantza edukitzekoa da. Soziologia aldetik egia da gaizki daudela kontuak, baina, jainkoaren eskuetan dagoela ikusirik, lasai naiz. Ezin dugu, hala ere, lo egon. Zezenari adarretatik heldu behar zaio.

■ **Zenbait herritan apaizik**

«Egia da apaizak guti eta zaharrak direla, egoera ez da ona, baina, kontua Jainkoaren eskuetan dagoela ikusirik, lasai naiz. Ezin dugu, hala ere, lo egon. Zezenari adarretatik heldu behar zaio»

soslaia

Elgetan jaioa, 25 urte beteko ditu datorren hilean. Gaztetandik izan du apaizgorako bokazioa, eta 16 urterekin erabaki zuen apaiza izanen zela. 18 urterekin, batxilergoko ikasketak bukatuta sartu zen apaizgaitegian.

Toledoko seminarioan lau urte eman zituen, eta bertze hiru, Iruñean. Toledoko apaizgaitegia «duen fama onagatik» hautatu zuen, eta mundu guztiko jendearekin bat egiteko aukera eskaintzen zuelako.

Lekunberrin eta Leitzañan egin zituen lehen urratsak. Irailaren 9an, Iruñean izendatu zuten apaiz, eta Elizondoko bizi da egun, Erratzu eta Elizondoko apaiz gisa. Zereginetatik kanpo gelditzen zaion denbora urrian kirola egiten du: frontoian aritu eta mendira joaten da.

gabe gelditzen ari dira. Hego Amerikatik eta bertze herrialde batzuetatik ekartzen ari dira apaizak eta mojak. Hori da irtenbidea?

Hemen bokazio gutxi dago, baina itxaropentsu egon behar dugu, krisi honi buelta ematen ari zaiolako hainbat tokitan, bokazioa berpizten ari baita zenbait herrialdetan. Atzeritik ekartzearena ez da irtenbiderik egokiena, baina une baterako soluzioa izan daiteke. Kultura oso diferenteetatik datoz, errietoak ezberdinak dira, eta erlijioa ere ezberdin bizi da. Transizio gisara ongi dago atzeritik etortzea, baina demostratu da onena bakoitza bere lurtean egotea dela.

jaioterrian eta eskualdean baino gehiago bai behintzat, eta hori poztekoa da.

■ **Hala ere, jende guti joaten da mezara, eta gazteak gutiago.**

Egia da hori. Lan egin behar da gazte jendea erakartzeko. Mezaren zentzua ulertarazi behar da. Lehen soziologikoki eta pertsonalki errazagoa zen mezatara joatea. Gaur egun, igande goiz batez gazte jendeak plan gehiago ditu, mezatara joatea baino. Hori errealitate bat da, eta buelta ematen ahalegindu behar da.

■ **Eremu euskaldunera bidali zaituzte. Euskaraz jakiteak zerikusirik izan du horretan?**

■ **Gipuzkoarra zara sortzez. Zein egoera aurkitu duzu Nafarroan?**

Egon naizen lekuetan familiaren edo gizartearen eraginagatik fede handiagoa dagoela sumatu dut hemen, nire

Bai, ez bairik gabe, horri erreparatzen zaio. Kasik automatikoa da euskalduna bazara mendialdera bidaltzea. Garrantzia ematen zaio horri. Orain eremu erdaldunean ere ikastolak eta hedatzen ari direla, apaiz euskaldunak bidaltzen hasi dira, Lizarrara adibidez, bertako ikasleekin ere lan egiteko.

■ **Elizondoko eta Erratzun ariko zara apaiz lanetan. Zein helburu dituzu?**

Familia balioak sakondu nahi ditut. Krisian dagoen instituzioa da, eta bultzada behar du. Gai-xoak, katekesia, klaseak... lan horiek ere bete beharko ditut, baina familiari leku berezia eman nahi diot.

■ **Elizak nora jo beharko lukete XXI. mendean?**

Tentazio bat da. Aurrera bai. Ireki behar du elizak. Nori eta nora? Jesukristori. Jainkoari atek ireki behar dizkio elizak. Mila alderditan egin behar da lan.

→ Jon Abril



Nafar Kronika

Mikel Beramendi

Igandeko eguzkia

Igandekoa festa handia izan zela errateko ez da burua nekatu behar, begi bistakoa izan zelako. Kontua da, ordea, batzuk festa egunik handienetan ere, zeruari begira jarri eta goizeko hodeiak desagertzen ari direla frogatuagatik itzaletan tematzen garela. Lerro hauek hartzen dituen erdarazko egunkaria balitz, festaren handitasuna azpimarratuko nuke. Artikulua irakurtzen ari zaretzen guztiok, ordea, horren berri baduzue, Lodosan izan zinetelako (talde itxien alde on bakarretakoa horixe da, horrelakoak erraz bota daitezkeela, huts egiteko batere arriskurik gabe).

Egunik eguzkitsuenak ere ezkuta ezin ditzakeen hodeiez ari nintzen. Azken urteotan behin eta berriro erakutsi dugu: gu gai gara Lodosakoa bezalako festa urtero antolatzeke. Meritu handia, txalogarria. Eguraldi ona egiten badu, 120.000 laguneko zifra emanen dugu (benetako kopurua pixka bat puztu eta gero); euria eginez gero, hogei milatan jaitsiko dugu kopurua (hori ere pixka bat puzturik).

Izugarría da Nafarroa Oinez-ek lorturiko arrakasta. Baina izugarria da, halaber, Nafarroa ofizialean milaka lagun horiek maite duten hizkuntzak pairatzen duen bazterketaren neurria. Agintariak hizkuntzari alde guztietatik eta ahal duten guztietan erasotzea salagarria dela badakit, baina salaketa bidea ez da bakarria eta agian ez da eraginkorra, harropuzak ohitu egin direlako. Are gehiago: gu zenbat eta sutsuago ikusi, haiek orduan eta lasaiago. Lana behar bezala egiten ari diren seinale.

Agian politikan ausartago eta argiago jokatzeko garaia heldu zaigu. Nola? Orain artekoaren kontrakoa eginez. Argi eta garbi: azken urteotakoa ikusirik hurrengo hauteskundeetan nafar euskaltzaleak bost zerrendaren artean aukeratu behar badu, seinale argia: ez dugu erremediorik. Hala bada, festa ederrak antolatu eta marka guztiak hautsiko ditugu. Baina sekula ez dugu ekaitzik gabeko ospakizunik eza gutuko. Ezta egunik eguzkitsuenetan ere.

gure aukerak

MUSIKA

- **Bera:** Bihar, Lurraren Egunaren karietara, Sen taldeak Pui ostatuan joko du, 23:00etan.
- **Bergara:** Gor Iruñeko disketeak bere hamargarren urteurrena ospatuko du, bihar, Jam aretoan. Taldeak: Berri Txarrak, Txapelunk, Buitraker, Jousilouli, Leihotikan, Ken7 eta King Putreak & The Vientre.

ANTZERKIA

- **Arantza:** *Oz-ko magoa* lana antzeztuko du gaur TEN Pimpilinpauxa taldeak, 20:30ean, frontoian.
- **Bakaiku:** *Oz-ko magoa* lana antzeztuko du, bihar, TEN Pimpilinpauxa taldeak, 20:00etan, frontoian.
- **Donamaria:** Kollins Klown taldeak *Marcelina oiloa* eta *Txokolatezko etxetxo* antzezlanak eskainiko ditu, igandean, 18:00etan, frontoian.
- **Mutiloagoiti:** Behi Bi's taldeak *Txakur beltz, handi eta iletsu* bat antzezlana eskainiko du, igandean, 18:00etan, Kultur Etxeko auditorioan.
- **Iruñea:** Igandean, Vaiven taldeak *Lotsagabe* antzezlana taularatuko du, 20:30ean, Nafarroako Antzerki Eskolan.

ZINEMA

- **Narbarte:** Igandean, *Baloia* filma pantailaratuko dute, trinketean, 20:30ean.

BERTSOLARIAK

- **Iruñea:** Asteartean, Xabier Amurizak eta Jon Maiak *Mende bat bertotan* emanaldia eskainiko dute, XX. mendeko bertso zaharren antologia, 20:00etan, Gurutzeko plazako institutuko areto nagusian.

HITZALDIAK

- **Burlata:** Euskal Herriko Nazio-

arteko Ikerketa Bulegoko kide Txente Rekondok *Irailaren 11tik aurrerako munduko eszenatoki berriak* hitzaldia emanen du, gaur, 20:00etan, Axularran.

- **Zangoza:** Juan Cruz Labeaga historialariak Zangozako iraganeko elikadura izanen du mintzagai, gaur, 20:30ean, Kultur Etxean.

IKASTAROKAK

- **Zaraitzu:** Gaur da azken eguna Zaraitzuerak ikastaroan izena emateko. Ikastaroa Aitor Aranak zuzenduko du, azaroaren 10, 17 eta 24an, 11:00etatik

13:30era, eta 16:00etatik 18:30era, Ezkarozeko Ibar-Etxean. Izena emateko, deitu 948-890580 edo 948-475150 telefonora.

ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** Elkartasun Astearen baitan, Sebastiao Salgadoren Brasilgo Lur Gabeko Mugimenduari buruzko argazki erakusketa ikus daiteke, Zabaldin, hila bukatu arte.
- **Iruñea:** Patxi Martzillaren marrazkiak eta olio pinturak hila bukatu arte bisita daitezke, Alkartetxean, egunero, 11:00etatik 21:00etara.

► **Zizur Nagusia:** Mugarik Gabeko Medikuen elkartearen argazki erakusketa azaroaren 18a arte izanen da, Kultur Etxean.

LEHIAKETAK

► **Literatura:** Iruñeko Udalaren Egile Berrientzako XVI. Literatur Lehiaketarako lanak asteazkena baino lehen aurkeztu behar dira.

BESTELAKOAK

► **Noain:** Gau eskolak (948-317144) monitore euskaldunak behar ditu boluntario gisa lan-tegiak aurrera ateratzeko.

OSKAR MONTERO



Pintada

Iragan asteko NAFARKARIAN informatu genuenez, Estellerriko Aras herriak eskualdeko herri apaintzetaren lehen saria eraman du berriki. Arasek baditu txoko ederrak, baita txoko bitxiak ere. «Prohibido subirse al tejado, bajo multa de 1000 pesetas», dio pintadak gaztelaniaz. Hau da, teiltura igotzen denak mila pezeta, 40 libera edo sei euroko isuna ordaindu beharko du. Ziurrenik teiltatu berri horretako jabeak eginen zuten pintada. Eta egokia iruditu zitzaion teiltura igotzeagatik mila pezeta isuna jartzea. Modu txukunean hasi zen pintadako letrak margotzen, baina badirudi gero aspertu egin zela, eta, lasterrago egiteagatik, oso modu traketsen bukatu zuten. Horrek, noski, sinesgarritasuna kendu zion abisuari. Ondorioz, baten batek isuna tikitzea erabaki zuten, 1.000 horri zero bat kenduz.